

GIZAKIA HELBURU – PROYECTO HOMBRE II. ARGAZKI LEHIAKETA

GAIA: "OSASUNA" da eta parte hartzen duten pertsonen irudiaren erabileraren bidez transmititu dezakete. Osasuna esanahi asko dituen ongizate edo oreka egoera da, subjektiboa (ondo sentitzen naiz) edo objektiboagoa (osasuntsu nago) izan daitekeelako. Horregatik, osasun kontzeptua proposatzen dizugu, nahi duzun moduan garatu dezazun.

PARTE-HARTZAILEAK: Lehiaketa programaren erabiltzaile guztiei zuzenduta dago (Prog. Tradizionala, Prog. intentsiboa, Prog. irekia, Alkoholismo Prog. eta Eraiki Prog.).

ARGAZKIEN AURKEZPENA: Argazkia originala izango da, telefono mugikorrekin edo kamera digitalarekin eginga. Ezingo da argazki muntaiarik egin eta kalitate egokia izan beharko du. Argazkiak originalak eta argitaragabeak izango dira. Proposamena "Argazki Lehiaketa" gaiarekin honako helbide elektronikora bidali beharko da formatu elektronikoan: concurso@izan.org Posta elektronikoko horretan, behar bezala betetako informazioa erantsiko da: **PARTE-HARTZAILEAREN IZENA ETA ABIZENAK, ZEIN FASE ETA PROGRAMAN KOKATZEN DEN ETA OBRAREN IZENBURUA. Pertsona bakoitzak gehienez bi argazki aurkeztu ahal izango ditu. Gogoan izan argazkian ezin dela pertsona identifikatu (aurpegiak ekidin mesedez,...)**

SARIAK: Sari hau banatuko da:

Gabonetako produktuak dituen lotea + Oroigarria + argazkia Izan Fundazioko Gabonetako postalean erabiliko da.

LANAK AURKEZTEKO EPEA: Argazkiak onartzeko epea Urriaren 20ean hasi eta Azaroaren 3an bukatuko da, epea luzatzeko aukerarik egongo ez delarik.

SARIEN BANAKETA: Saria lehiaketaren irabazlea dagoen fasean gauzatuko da.

EPAIMAHAIA: Lehiaketa antolatzen duen talde osoaz osatuta dago (Kanpo Komunikazio Prozesua / Gizartearekiko Konpromezua).

ARGAZKIEN BALORAZIOA: Originaltasuna, sormena eta jorratu beharreko gaiarekiko harremana kontutan hartuko dira.

ARGAZKIEN ERABILERA: Argazki irabazlea 2020ko Gabonetako postalaren irudia izango da.

JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK: Aurkeztutako argazkiak Gizakia Helburu programak erabili ahal izango ditu, Gabonetarako, webgunerako edota etorkizun batean barne edo kanpoko erakusketetarako ere.

ONARPENA: Lehiaketan parte hartzeak arau hauek guztiz onartzea suposatzen du, baita epaimahaiaren erabakiak ere. Erakundeak arauetan aurreikusten ez den edozein kontingentzia konpontzeko ahalmena izango du.

